

➤ FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren hainbat baliabide erabiliko ditugu.

- Baliabide fisikoak: lanerako aretoa (Deitzek Algortan duen txokoa), ordenagailua, telefonoa, produkzioarako materialak (plastiko birziklatua eta tela).
 - Ekoizpena eskulanaren bidez izango da, enpresa txiki bat garelako. Hortaz, **langileak gu** izango gara, ekintzaile garen 4 kideok lanean ibiliko gara egin beharrezko funtsezko-jarduerak betetzen eta aurrera eramaten.
 - Gure lantaldean **ekoizpena** Asierrek eta Yadhirkak eramango dute eta produktuak ondo eratzeaz arduratuko dira. **Materialaren kontrola**, hots, ekoizpenerako material guztien kudeaketaren arduraduna, Deitze izango da. **Hornitzaile-saltzaile harremanen komunikazioa** Uxuek eramango du, hornikuntza-epeak betetzen direla ziurtatuz eta haiekin harreman ona mantenduz. Halaber, enpresaren kontuak, hau da, diru-sarrerak eta kostuak kontrolatzeaz arduratuko da, gure aukeren barruan gaudela ziurtatzeko.
 - Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: **produktu buruen sormena** eta produktuen eraketarako behar diren ezagutzak gure baitan ditugu, lauron arteko ezagutza eta esperientziak elkarren artean konpartituz eta erabiliz.
 - Gure eraztuna patentatuta egongo da, plagiorik ez jasotzeko. **Patente eta Marken** Espainiako Bulegoan (OEPM) izapidetuko dugu.
 - **Finantza-baliabideak**: Hasiera batean autofinantzaketaz baliatuko gara eta Sabadell banketxearen laguntza eskatuko dugu. Udaletxeak ekintzaile eta enpresa txikientzat eskaintzen dituzten diru-laguntzak eskatuko ditugu eta ematen badizkigute, produkzio prozesua azkartzeko eta hobetzeko materialetan inbertituko dugu.

